

Ikusentzunezkoak Lantzeko eta Zuzentzeko Saioa Wordpress, Youtube eta Google Docs Erabiliz

Gorka J. Palazio

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Laburpena

Komunikazio honetan, egileak Euskal Herriko Unibertsitatean buruturiko saio bat azaldu nahi du. Irakasgaia Telebistako berrien idazkera izanik, irakasleak sistema erraza eta eraginkorra lortu nahi izan zuen ikasleen lanak erakusteko, partekatze eta ebaluatze. Protagonistak irakasleak izanik, beraiek egin behar irakasleak agindutako bideolanak, ikaskuntza aktiboa deritzon eredu burutuz. Baina bideogintzaren zailtasunak aintzat harturik, sistema erraza lortu nahi zen ikasleek ahalik eta problemarik gutxien topa zitzaten.

Wordpress CMS, Youtube eta Google Docs baliatuz, ikasleek egindako erreportaiak izan ziren ekaiak maneiatze baliabideak. Ikasleek erreportaia laburra egin behar izan zuten, atazak irakasgaiaren ehuneko 50ko balorea izanik. Horrek kalkulu orrialdea, formularioa eta hodeiko ostatzea gauzatzea ekarri zuen. Hodeiko zerbitzuak edukitzea Wordpress bideogunearekin batera, eraginkorra izan zen ikasleek ikaslan edo ataza burutzeko.

Ikasleek bideolanak egin zituzten Software Libre eta Web 2.0 zerbitzu doanekoen gainean. Hasieran, edukiak argitaratzeko gomendioak eta baliabideak eman zitzaizkien lanak ondo burutzeko. bideogintzan sarritan horren inportantea den lizentzien kontua ahazten baita irakaskuntzan. Horrela, esperientzia eredugarria finkatzea zen asmoa, bai beste urte batzuetarako, bai eta beste irakaskideentzat.

Hitz-gakoak: Wordpress, Youtube, Google Docs, ikusentzunezkoak, bideogintza

Abstract

In this communication, the author explains an experience at the University of the Basque Country. The subject was Writing for TV, and the teacher wanted to get a simple and effective way to show students' work, sharing their videos and evaluating them. The protagonists were students, videos were to be made by themselves implementing the so called *active learning*

model. However, taking into account the difficulties of video making, the goal was to get a simple system for the students, in order to avoid the problems we usually get working with video stuff.

Students had to use Wordpress CMS, Youtube, and Google Docs (Drive), for making a news report that had a value of 50 % of the final calification . This task encouraged students to use spreadsheets, forms, and cloud hosting services. Using Wordpress in local and cloud services was effective to fulfill the task by the students.

Videos were made by the students using Free Software and free Web 2.0 services. Initially, resources were given to the students in order to publish content correctly, because in the field of video making the importance of talking about licensing questions is usually forgotten. Therefore, the intention was to establish an exemplary experience for next scholar years and colleagues.

Keywords: Wordpress, Youtube, Google Docs, video, audiovisual

Ikusentzunezkoak Lantzeko eta Zuzentzeko Saioa Wordpress, Youtube eta Google Docs Erabiliz

Introducción

Ikusentzunezkoen irakasgaietan askotan topatzen ditu irakasleak problemak ikasleekin atazak edo ikaslanak egiteko. Unibertsitate askotan problemak izaten dira ikasleek behar dituzten lantresnak eta teknologiak eskuratzeko eta irakasleak ere maiz problema franko topatzen du bideoak eta ikusentzunezko mintzaira lantzeko orduan. Hori dela-eta irtenbidea emateko asmoz, esperientzia bat doa hurrengo lerroetan, doanekoak diren hiru sistema erabiliz problema horietatik itzuri ahal izateko. Wordpress, Youtube eta Google Docs aski izan daiteke ikaskuntz saio eraginkorra lortzeko, bidenabar, ebaluazioa ere burutuz. Hemen azaltzen den kasu honetan, bideoen erabilera bideogintza lantzeko egiten da, arlo praktikoa eta pedagogikoa landu nahirik eta ikasleei ebaluazio prozesuan aukera emanez. Hala ere, jakina da ikaskuntza prozesu hauetan zaila izaten dela arlo pedagogiko guztiak lantzea beste irakasle batzuk saiatu diren bezala (Barberis et al. 2007). Interakzioa eta kolaborazioa ikasleen artean sortzea sarritan zailagoa izaten da norberak lanak garaiz egin eta ebaluatzea baino ohiko irakaskuntz prozesuan Orain arte egin den bezala. Horregatik hasierako asmo pedagogikoak ikaskuntza prozesuan eta erreminten aukeran gehiago zentratu ziren, ikasleen arteko kolaborazioan bideogintza lantzeko taldekako laguntzan soilik oinarrituz. Hau da, ikasleak bikoteka jarri zituen irakasleak banakako lanak izanagatik, elkarri laguntzarren. Dena den, kontua ez zen irakasleak bideoak sortzea, baizik eta ikasleak izatea bideolanen egileak, Eta hori diot zeren eta bideolan pedagogikoak komentatzeko garaian, pedagogo batzuek ahazten dute irakaslea izan beharrean ikaslea bideo-egilea izatean datzala benetako aldaketa disruptiboa. Ondoren, ikus dezagun prozesua eta erremintak.


Wordpress Plataformaren Aukerak Ikusentzunezkoen Arlorako

Irakasleak bideoak egiteko eskatzen dienean ikasleei, neketsua izan daitekeen prozesu baten gainean egin behar du gogoeta. Bideoak egin eta editatzea gero eta errazagoa den ekintza izan arren, bistakoa da hiru faseko prozesuaz ari garela: bideoa egin, editatu eta erakutsi. Hortaz, zaila izaten da ikasle talde batean guzti-guztiek edukitzea ezagutza hiru fase horietan ondo moldatzeko. Batzuetan, lehenbiziko fasean sortzen dira problemak jada, bideoak grabatzeko aparatirik ez dutelako ikasleek. Hala ere, azken bolada honetan eta batez ere tabletak eta patrika telefono sofistikatuak zabaldu direnetik, bideoak ohikoagoak dira ikaskuntza arloan. Aplikazioak daude gaur egun, errazki bideoak grabatzeko, kalitatea zainduz. Bigarren fasea ere zaila izan daiteke batzuentzat, bideoak editatzea ez baita izan orain arte edonork egin dezakeen gauza.

Programak eta ezaguerak eduki behar horretarako. Alabaina, hemen ere asko lagundu du azken aldi honetako aparatu mobilen iraultzak. Eta azkenik, plataformak behar dira Internet-en ikasleek egindako bideoak irakasleari edo/eta mundu osoari erakusteko. Eta azken honetan, bi gune mota erabili ohi dira: bideogunea eta bloga/vloga. Bideoguneari dagokionez, Youtube eta Vimeo izaten dira zabalduenak eta ikasle-irakasleen hautu ohikoak.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan ez da Wordpress aukera bakarra ikusentzunezko lanak erakusteko eta sailkatzeko. Baten batek pentsa dezake baliabide gutxi daudela ikusentzunezkoak lantzeko. Hala ere, blog sistema ospetsuez gain, hots, Wordpress, Blogger edo Tumblr blog plataformez gain, CMS libreak ere existitzen dira (Joomla, Drupal...), hezkuntzaren arloan erabil daitezkeenak. Wordpress, hala ere, blog sistemaz harago doa, benetako CMS bezala ere erabil daitekeelarik. Kontua eduki dinamikoa antolatzea da, finkoarekin erlazionatuz, erabiltzaileak sistema ahaltzua duela senti dezan.

1. irudia. Detube izeneko txantilioia oso ona da bideoguneak egiteko Wordpress CMS erabiliz.



Hezkuntzaren arloan, hiru modutara erabili ahal ditugu blogak:

1. Ikaslearen bloga portfolio moduan
2. Irakaslearen bloga irakasgaiaren oinarritzko erreferentzia bezala
3. Irakasgaiko blog kolektibo bezala (ikasleak eta irakasleak blog berean editatzen rol desberdinak eduki ahal dituztelarik.


Wordpress sistemak bideoguneak gauzatzeko aukera ere ematen digu, bideogune horiek ikasleek egindako lanen bilgune bihurtu ahal direlarik. Horretan, lehenbiziko lana ostatzeari lortzea da. Nire kasuan, Amerikan ostatzeari dudanez, eta ostatzeari enpresak Softaculus eta Fantastico script abiarazleak erabiltzeko aukera ematen duenez, dena errazten da. Irakasleak, era horretan, unibertsitateak ematen ez dituen puntako zerbitzuak ordainduz, Wordpress propioa edukitzeko aukera du, baita nahi duen txantilioi edo tema ere. Wordpress plataforma da txantilioirik gehien duen sistema eta ez da zaila Themeforest, OneDesigns edo horrelako gune batean egokia den txantilioia lortzea, ordainduz edo doan.

Doaneko txantilioia da Minimatica izenekoa, irakasleak hautatu zuena ikasleen lanak

erakusleihen bezala ipintzeko. Minimatica txantilioia, bideoez gain, argazki galeriak eta podcastak ipintzeko ere prestatuak dago. Behin Wordpress tema instalatutakoan, ikasleek Youtube zerbitzuan utzitako bideoak txertatzen hasi zen irakaslea. Ikasle bakoitzak erabaki behar zuen nola utzi bideoa, hau da, pribatuki, publikoki edo zerrendatu gabe. Bistakoa da, publiko utzi zirenak baino ez zituela jarri irakaslea Wordpress sistemako webgunean.

2. irudia. Minimatica WP txantilioia erabili zen ikasleen lanak erakusteko.

Bideoak



ETIKETAK

Etano Pasaia Petilla [Trebiñu](#) Urduna Villavende

Hasiera Barrendegiak

Youtube, Bideoak Konpartitzeko, Txertatzeko eta Editatzeko Bideogunea

El mercado de los smartphones es muy cambiante y va acorde a los gustos y al éxito de los sistemas operativos adaptados a ellos. Así como la empresa finesa Nokia ha sido el punto de referencia durante los últimos años gracias a su plataforma Symbian, el 2010 marca el declive de su sistema operativo en favor de tres grandes competidores, que se van acercando a su cuota de mercado o incluso la superan: Android, iOS de Apple y RIM de Blackberry.

Pero la eclosión de los smartphones empieza con Apple, cuando en el año 2007 presentó su primer teléfono móvil con la denominación de iPhone. En aquel preciso momento Apple dio un empuje grande al uso de los aparatos móviles también en los entornos educativos. La potencia de los procesadores en estos dispositivos y su capacidad de uso de ficheros audiovuales hizo que las aplicaciones de vídeo se popularizaran. Incluso el propio Apple tuvo que incorporar a Youtube a su sistema operativo y arreglar el problema de los vídeos en el formato Flash Video. El no soportar la tecnología Flash no podía incidir en dejar a un lado al gigante de los vídeos en Internet, y así se buscó la solución para por medio de conversión poder ofrecer cualquier vídeo de Youtube en las plataformas de Apple.

Irakasleek berehala ikusi zuten nola egunez egun sortzen ziren aplikazio gehiago aparatu mobiletarako eta nola streamingezko zuzeneko bideogintza eta diakronikoa dena etengabe emendatzen ziren. Hala nola, aplikazio ahaltzuak eta egokiak ikusentzunezko arloetarako sortu dira azken urteotan eta irakasle zein ikasleei aukera paregabea eskaini diete ikusentzunezko materialak baliatzeko. Horietariko batzuk, Matterhorn, Jing, Splicd, Animoto, Ujam, Coach's eye edo Ustream (Bates, 2013).

Youtube da ezbairik gabe Web 2.0 mugimendutik ateratako onlineko zerbitzu erabilienetarikoa. Bideoak partekatzea eta argitaratzeko erreminta ahaltzu bezala presentatu zen hastapenetik, baina editatzeko aukerak ematen joan da denboraren joanean, funtzionalitatea handiagotuz. Hortaz, ikaskuntza prozesuetan eta bideogintza lantzeko, zerbitzu egokia izan daiteke baldin eta ikasleei aldez aurretik, zenbait gomendio eskaintzen bazaie. Gomendioak ezezik, irakasleak zenbait bideoen erreferentzia eman diezaieke ikasleei Youtube zerbitzuaren funtzio inportanteenak zein diren jakin dezaten eta laguntza zerbitzua non dagoen erakutsiz⁸².

82 <http://support.google.com/youtube/?hl=es>

Gogora dezagun Youtube-ren bideo editorearen bidez hainbat gauza egin daitezke:

- Zenbait bideo eta irudi erabili eta nahastu, aldez aurretik Youtubera igotakoak, bideo berriak egiteko.

- Ebakiak egin zatien iraunpena zehazteko asmoz.

- Bideoari musika erantsi, horretarako Googlek onarturiko doinuak erabiliz, lizentziekin problemarik ez edukitzearren.

- Bideoak eta zatiak pertsonalizatu erremintak eta soinu efektuak baliatuz.

- Barneko erremintak erabiliz, bideo berriak sortu ahal dira Youtuben ziztu batean argitaratzeko.

- Ikasleak trebatzeko irakasleak planteaturiko ariketa honakoa izan zen fase hauetan eta ordenagailu gela erabiliz:

- Youtube-ko bideo bat deskargatu zuzenean nabigatzailearen bidez programa lokalik gabe eta Keepvid⁸³ edo Yconv⁸⁴ onlineko zerbitzuak erabiliz. Fase honetan 3gp, MP4, WebM, FLV eta MP3 formatuen arteko diferentzia azaltzen zaie ikasleei.

- Deskargaturiko bideoa berriz igo norberaren Youtubeko kontura.

- Hirugarren fasean, ikaslea Youtube-ko editorea erabiltzen hasten da. Funtzio desberdinak azaltzen ditu irakasleak eta amaieran, testuak editatu ostean, efektu bat aplikatzen zaio bideoari beste berri bat sortuz.

- Laugarren fasean, bideoa nola esportatzen den blog edo beste gune batera erakusten du irakasleak.

- Modu horretan, ikasleek. Behin Youtube eta Wordpress blog sistemaren oinarrizko funtzionalitateak, eta ikusentzunezko mintzairaren printzipioak, planoak, iraunpenak eta abar

83 <http://keepvid.com>

84 <http://ytconv.net>

erakutsitakoan, ikasleak prest daude irakasleak agindutako bideolana burutzeko. Lana emateko epemuga finkaturik, irakasleak Google Docs zerbitzuak duen formularioa egin beharko du lanen biltze prozesuan eta ebaluazioan abiatzeko.

Google Drive zerbitzuko formularioak eta kalkulu orrialdeak

Egun klaseak alderantzizko prozesuan ematearen alde agertu dira hainbat pedagogo. Flip egitea erabiltzen da ekintza hori izendatzeko, hots, ariketak etxean egin eta klasean soluzioak eman eta partekatu. Hori dela-eta, erreminta batzuk gero eta beharrezko bihurtu zaizkigu eta Google hor dago esperoan erreminta kolaboratiboak guztion esku jarritz. Erreminta horiek datuak jasotzeko eta ebaluazioa hobeto gauzatzeko erabili ziren ikasleekin atazaren azken fasean. Sistema hauek erabiltzearen abantailak asko dira eta Just-in-Time (garaiz) izeneko irakaskuntza errazten dute (Hamon, 2013), ezbairik gabe.

Azken bolada honetan onlineko gordailu zerbitzu asko ikusi ditugu: Dropbox, Ubuntu One, Box... Fitxategiak igo eta konpartitzeko aukera ematen dute. Antzekotsuak dira guztiak. Baina, again, horietako bat hartu beharrean, Google Drive⁸⁵ zerbitzuaren hautua egin dezakegu, Google-ren zerbitzuak atek zabaltzen dizkigulako Google Docs onlineko suiteko tresnak baliatzeko (kalkulu orrialdea, presentazioak, testuak sortzeko aplikazioa eta abar). Beraz, Google Drive⁸⁶ zerbitzuak aukera ematen du irakasleok dokumentuak kolaboratiboki idazteko eta burutzeko. Zoho edo TitanPad zerbitzuen antzera, testu prozesatzaileak kolaboratzeko funtzioa edukitzea azken aldian irakaskuntzan gertatu den aldaketa kualitatibo inportanteenetariora izan da. Eta Google Docs zerbitzuan bezalaxe, Drive-n formularioak ere sor ditzakegu datuak formularioari berari datxekion kalkulu orrdialdean gordez. Hori dela-eta, irakasleak formularioa egin zuen ikasleen lanen erreferentziak edo URLak metatzeko. Datuak kalkulu orrialdera

85 <http://drive.google.com>

86 <http://drive.google.com>

doazenez, irakasleak irakasgaiko lanen erreferentzia gorde dezake eta edozein unetan kalifikazioak jarri kalkulu orrialde berean edo beste batean. Horrez gain, datuak grafikoki ikusi ahal ditu irakasleak karten bidez. Kontutan hartu behar dugu unibertsitatean balio desberdinak ematen dizkiegula ataza edo ikaslanei, eta horrek ezinbestean garamatzala kalkulu orrialdeen funtzionamendua ondo ikastera. Bestalde, irakasleak ezin dezake ahantz komenigarria dela alde aurretik ikasle guztien posta elektronikoak edukitzea. Azken horretarako, irakasleak klasearen lehen egunean eska dezake testu sinpleko dokumentu batean ikasleek banan-banan idaztea beren posta elektronikoa. Testu soil moduan gordetzea inportantea da, horrela geroago aplikazio desberdinetara problemarik gabe esportatzeko. Horrela egin ezik, kodeak trabak sor ditzake ezkuturik kode-zarama baitarama.

Hortaz, ikasleak berak pasatzen ditu erreferentziak formularioaren bidez irakasleak prestaturiko galdetegian sartuz, eta irakasleak automatikoki jasotzen ditu datuak ebaluazio lana errazteko. Geroago, formulario berean egin dezake kalifikazio partzialaren ehunekoa edo portzentaia. Irakaslearen kalifikazioarekin batera, ebaluazioa demokrazizatuz-edo, ikasleek beste formulario baten bidez, berenak ez diren beste lanen gainean kalifikazioak jartzeko aukera izan zuten, beti ere kalifikazio hori balio osoaren % 25etik pasatzeke. Irakasleak % 75eko balioko kalifikazioa burutu zuen.

Ondorioak

Urtebeteko esperientzian oinarriturik, klasean bideoak lantzeko aukerari dagokionez, aipaturiko hiru zerbitzuak erabiltzea *Berrien Idazketa Telebistan* izeneko irakasgaian ongarria dela ondorioztatu ahal da. Aukerak asko izan arren, Wordpress, Youtube eta Google Drive egokiak izan daitezke ikaslan edo ataza eraginkorrek sortarazteko zailtasun ertaineko zerbitzu edo plataformak izanik ere. Onlineko hiru zerbitzu horiek irakaskuntzaren prozesu osoan lagundu zioten irakasleari, eta ebaluazio prozesuan ere ezinbestekoa izan zen Google Drive-Google Docs plataforma lana azkarkiago egin zedin. Hala ere, bistan da irakasleak alde aurretik ondo prestatu behar duela ikaslana eta menperatu ere ondo menperatu behar dituela hiru sistemak. Wordpress plataformari dagokionez, problemak topatu ohi direnez Wordpress.com zerbitzuak hainbat gauza egiteko aukerarik ematen ez duelako, irakasleak Wordpress lanak erakusteko zerbitzu propioan erabili behar izan zuen ostatze partikularra baliatuz.

Erreferentziak

Barberis, Juan G., Bombelli Enrique C. eta Roitman Gustavo G. (2007). *Uso pedagógico del video digital en la Educación Superior. Casos de estudio.*

<<http://www.utn.edu.ar/aprobedutec07/docs/83.pdf>> [Kontsulta: 2013/VI-2]

Bates, Laura (2013). *7 of the Best Audio and Video Tools for Teachers*

<<http://www.fractuslearning.com/2013/06/07/video-tools-for-teachers>> [Kontsulta: 2013/VI/02]

Hamon, Keith (2013). *Just-in-Time Teaching: Harnessing the Power of Google Forms*

<<http://www.fractuslearning.com/2013/05/15/google-forms-just-in-time/>> [Kontsulta: 2013/VI-2]

Ruipérez, G eta Palazio G. (1972). Gestión de vídeos y podcasts en el aprendizaje de idiomas. In Cristóbal Suárez eta Francisco J. García Peñalvo (ed.) *Universidad y desarrollo social de la Web*. Sevilla: Editandum.

Zenbait egile (2013). *Trabajo colaborativo con Google Docs*. Scribd:

<http://es.scribd.com/doc/24658397/Google-Docs-documentos-colaborativos-en-el-aula>

Alexrageaholic (2013, maiatzaren 14a) Complete guide for *Detube WordPress professional video theme*. <http://webcheapdesign.com/guide-detube-wordpress-professional-video-theme/>

Youtube: http://www.youtube.com/watch?v=cVT_j2Jr3Qc [Kontsulta: 2013/VI-2]